

Baketiken urteko gogoeta, proposamen eta dibulgazio ekimena

R

bizikidetza eta adiskidetze
kultura berri baterako

2021

Indargunea

Artea eta sormena,
gogoeta egiteko

baketik

2021eko apirila



2021

indargunea
bizikidetza eta adiskidetze
kultura berri baterako

Sarrera

2011. urteaz geroztik, "Adiskidetzerako indarguneak" ekimenak, Baketiketik beste ikuspegi batzuk eman eta gehitu nahi dizkie gure errealitate soziala zeharkatzen duten eztabaidei. Bere garaian planteatu zen urteko dokumentu honek, hainbat eragilek garatutako ehunka ekimenekin batera, bizikidetza eta adiskidetze kultura berri bat sortzen lagundu nahi zuela gure gizartean. Izan ere, adiskidetzea, berreraikitzea eta harremanen erreparazioa izan zen aurreko dokumentuaren oinarrietako bat, 2020. urtean "Sare sozialak berregitea" izan baitzuen ardatz.

Horrenbestez, 10 urte bete dira Indarguneen ekimen hau abian jarri zenetik. **Hamarkada honetan nabarmen aldatu dira** gure inguruko **bizikidetzarako oinarriak**: ETAren indarkeria terrorista desagertzeak eta sufrimendu guztiak aitortzeko aldaketa politiko eta sozialek komunikatzeko, elkartzeko eta harremanak izateko modu berriak sortu dituzte gure erkidegoan. Hala ere, gure inguruari begiratu azkar bat ematen badiogu, ikusiko dugu sarritan trabatuta jarraitzen dugula komunikazio mota bortizetan, ez demokratikoetan, forma dikotomikoak berreskuratzen baitituzte, ez inklusiboak. Gizarte gisa, sufrimendurik sortu gabe adierazteko aukera emango diguten mintzairen eta moduen beharrean jarraitzen dugu oraindik ere.

Era berean, 2020ko otsailean argitaratutako azken Indargunetik hona, goitik behera aldatu da errealitatea, covid-19k eragindako pandemiaren eta gure eguneroko bizitzan eta gizarte egituretan eragin dituen aldaketa guztien ondorioz. Pandemia horrek beste gizarte krisi bat sortu du, eta, horren aurrean, argi dago beharrezkoa dela elkartasuna, gizarte eraldatzea, sarritan elkarrengandik urrun dauden gizarte taldeen arteko bizikidetza eta laguntza formulen bidez. Krisi berri hau egiturazko bihur daiteke azkenean, eta gizarte mailan hausnarketa egiteko beharra erakusten digu, gure oinarriari begiratu eta haien erabilgarritasuna planteatzeko beharra.

Eta birbegiratze horretan, pandemiak eragindako hasierako shocka igaro ondoren, konpondu gabeko gaiak aurkitzen jarraitzen dugu, eta horiek berehalako erronkak planteatzen dizkigute, batetik, eta epe ertain-luzeko beharrak bestetik. Euskal Herriak indarkeriaren inguruan ezagutu duen gizarte bizikidetza eta memoriaren narratiba



2021

indargunea
bizikidetza eta adiskidetze
kultura berri baterako

aldizka agertzen da oraindik ere, baina presente dago eguneroko zenbait alderditan, batez ere udal mailako bizipenetan. Duela urtebete, 2020 Indargunean, berretsi genuen "bakea eraikitze bideak ez duela amaierarik. Eraikitzeaz ari gara, ibiltzeaz, eta ez leku jakin batera iriste hutsaz". Orain dela urtebete aipatu genuen bezala topaguneez berresten dute "gizartearen ehuna oraindik urratua dagoela" eta "sare soziala berreraikitze eta sendatzeko guneak behar direla". Bizikidetza eraikitzeari eman beharreko erantzunak ez dira unibokoak, eta, 2021 honetan, kultura adierazpenei eta arte formei begiratu nahi diegu, kaltetutako gizarte ehun hori lehengoratzeko mekanismo gisa.

Artea eta sormena tresna gisa

Baina, 2021 honetan zergatik jarri gure arreta kulturean eta artean? Urte hauetan ugari izan dira topaguneez sortzera, bizipenak partekatuzera, bestearen sufrimendua aitortuzera eta eskubideen urraketak gaitzestera bultzatu gaituzten proposamenak. Hala ere, sarritan, oraindik ez ditugu aurkitzen zubi horiek eraikitzen lagunduko diguten hitzak.

Horren aurrean, "hizkuntza estetikoak eta sinbolikoak lagundu egiten digu hizkuntza analitikoaren edo arrazionalaren bidez adieraztea zaila den hori hobeto adierazten. Adierazi ezin ditugun oroitzapen mingarrien eta nahasien aurrean, zentzua bilatzeko eta narrazioak sortzeko modu bat da sorkuntza prozesua"ⁱ, Adiorik gabe/Sin adiós proiektuaren bidez planteatu genuen bezala.

Alde horretatik, modu arrazionalen artikulatzeko gai garenetik haratago joateko formula ematen digu sormenak: ideia asoziazio berriak sortzera bultzatzen gaitu, ondorio berrietan arreta jartzera, edo, ia modu intuitiboan eta errailetatik ere, irtenbide desberdinak eta berritzaileak eraikituzera.

Artearen hizkuntza sinboliko hori "espazio seguru" bihurtzen da jende askorentzat, non "sortzaileak bere barne munduaren kontrola hartzen duen gogoratzen eta adierazten zailak diren oroitzapenak lantzeko eta zentzua emateko"ⁱⁱ. Era berean, arte adierazpen horren hartzzaileak artistak transmititu nahi izan zituen bizipen pertsonal



2021

indargunea
bizikidetza eta adiskidetze
kultura berri baterako

horiek jaso, berretsi edo baztertu eta erantzun ditzake, bai eta beste esanahi batzuek hornitu ere.

Giza eskubideen urraketen eta ezagutu dugun indarkeriaren aurreko bizipenak, pentsamenduak eta emozioak islatu dituzte era askotako artistek beren adierazpenekin. Literatura izan da, beharbada, euskal artistek eta beste latitude batzuetako artistek gure inguruko gatazkak jorratu dituzten esparru emankorrenetako bat. Idazketa/irakurketa tandemak aukera ematen digu beste errealitate batzuetan oso modu intimoan barneratzeko, eta "narratibak mugiarazten dituen alderdiek beste ikuspegi batzuetatik begiratzen laguntzen digute, jarri gaituzten edo oharkabean jarri garen ikuspegietatik harago"ⁱⁱⁱ.

Sarritan, narrazio zabalagoen eta gatazkari buruzko eszena zehatz batzuk biltzen zituzten eleberrien bidez egin ziren literatura bidaia horiek; beste batzuetan, berriz, ipuin gisa gauzatu ziren, eta, nola ez, bizikidetasun demokratikorik eza eta hark eragindako hondamena ardatz duten eleberriak sortuz. Literaturak gero eta obra gehiago ditu, eleberri berriagoak eta, sarritan, gatazkaren biktimen bizipen pertsonalean eta giza bizipenetan oinarritzen diren lanak. Halaber, ez dira falta gatazkaren osteko urteak jorratzen hasi ziren eleberriak eta narrazio lanak, eta begirada narratiboa eskaintzen diote gaur egun bizikidetza eraikitzen jarraitzeko eta bizi izandako sufrimenduaren aitorpena sortzeko beharraren aurrean hainbat eragilek izan dezaketen bizipenari^{iv}. Eleberri grafikoa ere agertoki aproposa bihurtzen ari da Euskal Herriko oraintsuko indarkeria jorratzeko.

Askotan ikus-entzunezko hizkuntzarekin bat egiten du literaturak eta elkar elikatzen dute. Hala, literatura lan bat baino gehiago eraman dira hizkuntza zinematografikoetara, zinemarako film luze gisa edo telesail moduan. Bestalde, zinemak -fikzioaz ari gara bereziki- beste formula erabat hedakorra eskaintzen du narrazioak egiteko, begiradak helarazteko eta hausnarketa soziala sortzeko. Euskal sortzaileek hainbatetan egin dute apustu beren lana indarkeriak eragindako minean edo azken hamarkadetan gure inguruan izandako gertakarien narratiban oinarritzeko.

Horren eskutik, antzerki lanak agertzen hasi dira, biktimen bizipenak, poliziaren jarraipen kasuak, minaren kudeaketa, pertsonen arteko inkomunikazioa eta beste



2021

indargunea
bizikidetzeta eta adiskidetzeta
kultura berri baterako

hainbat giza baldintza jorratzen dituztenak, hizkuntza eszenikoaren bidez helaraz daitezkeenak.

Arte plastikoa ere ez da bazterrean geratu, eta XX. mendearen amaierako eta XXI. mendearen hasierako obrak biltzen dituzte gure lurraldeko museoek, jendeari sufrimenduarekiko eta giza eskubideen urraketarekiko erreakzioak eragiteko. Beste arte forma batzuk ere aipatu beharko lirateke, zalantzarik gabe, irakurketa sistematikoa egingo bagenu, hala nola oraintsuko indarkeriara jotzen duten musika eta kantak, edo bertsolari asko eta asko beren sorkuntzarekin, besteak beste.

Norberaren sormenetik gizartearen eraldaketara

Sormenak, arteak, bizipen pertsonala eskaintzen digu, hizkuntza artistikoaren bidez barne emozioei heltzeko aukera, askotan hitzetan adierazten zailak diren horiek. Baina, istant pertsonal horretatik harago, norbanakoaren aukera horretatik harago, "gizarte mailan, mina modu kolektiboan partekatze eta tratatzeko aukera ematen du sorkuntza bat sozializatzeko, bai eta adiskidetzeko baldintzak sortu ere"^v. Hau da, kulturak hausnarketa soziala bultzatu dezake -eta bultzatu egin behar du-.

Arte adierazpenek eta "kulturaren arloko esku hartzeek kultura interakzioa eta ulermena errazten dute, eta pluraltasuna barneratu eta islatuko duten ikuspegi berriak sortzen lagun dezakete"^{vi}. Azken batean, gizarte gisa ere, arteak eta praktika artistikoen alderdi sortzaileak, komunikatzeko eta hausnartzeko mekanismoak eskaintzen dizkigu jolasaren, ezagutzaren eta komunikazioaren bidez, hainbat hizkuntzaren bidez^{vii}.

Arteak zerbait beste ikuspegi batetik begiratzeko ematen digun gaitasun horrek, bai sortzen duenarentzat, bai behatzen duenarentzat, aukera ematen du gizarte urratuaren ehuna berreraikitze beharrezkoa den zerbait lantzeko: emaitza behatzeko aukera ematen digu, prozesua planteatzen dugun bitartean. Sormenak aukera ematen digu beste pertsona baten begietatik begiratzeko eta horretara behartzen gaitu, enpatia gure prozesuaren erdian jartzera. **Arte eraikuntzak biluztu**



2021

indargunea
bizikidetzeta eta adiskidetzeta
kultura berri baterako

egiten du gure arrazionaltasunaren zati bat, besteen bizipenen intimitatean barneratzeko.

Baina, zer egin behar dugu sormena eta arte adierazpena bezain gauza aske eta mugarik gabekoen eta giza eskubideen oinarriekin bat datozen berreraikitze sozialeko prozesuak eta memoria sortzeko behararen artean sortzen den talka edo txoke hori hausteko?^{viii} Hortxe dago, agian, konpondu beharreko egoera konplexuenetako bat: **nola bermatu arte askatasuna, eskubideetan oinarritutako ikuspegiarekin bateragarria den zoru etikoari eutsiz?** Nola bultza daiteke kultura sorkuntza emantzipatzailea, gatazka batean giza eskubideak urratzearen ondorioz sortutako bizipenak, eta ez ideologietan, teorietan edo bakea finkatzeko prozesuetan adiskidetzen zailak diren beste ikuspuntu batzuetan oinarritutakoak, interpelatuko dituen?^{ix}

Memorializazio prozesuak

Gizarte orok eraikitzen du bere bizipenen oroimena: iraganaren oroimenik gabe, ezin da egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubiderik izan, ez eta ez errepikatzeko bermerik ere. Memorializazioa "funtsezko tresna da gizarteak gorrotoaren eta gatazkaren logikatik atera eta bake kultura lortzeko prozesu sendoak hasteko"^x. Iraganean bizi izandako indarkeriak argitu ditzakete oroimen prozesu horiek, gaur egun oraindik ditugun erronkei aurre egin eta gerta daitezkeen indarkeriak saihestuko dituen etorkizuna prestatu. Eta prozesu horietan ere lekua izan behar du sormenak.

Esparru horretan, **oroimen prozesuek, baita arte adierazpenen bidez ere, lagundu egiten diote konpromiso sozial demokratikoari**, iraganaren irudikapenari buruzko eztabaidak sustatzen dituzte eta arazoei egoki ekiteko aukera ematen dute. Maila sozialean, **indarkeria eragiten duten kausei, erantzukizunei eta ondorioei buruz gure gizartean eztabaidatzeko baldintzak sortzeko mekanismoa ere izan daiteke kultura^{xi}**. Aldi berean, oroimen eta bizikidetzeta politika publikoak behar ditu eztabaida horrek, baina **arte adierazpenak balio dezake isiltasunak askatzeko eta entzuteko beste bide batzuk bultzatzeko.**



2021

indargunea
bizikidetza eta adiskidetze
kultura berri baterako

Joan den apirilaren 18an, "Iragan konplexuak: askotariko etorkizunak"^{xii} leloak gure iraganari buruzko hausnarketa bultzatu zuen Monumentuen eta Leku Historikoen Nazioarteko Egunean: iraganaren azterketa kritikoa egiteko gonbita egin zen, eta erronka hau onartzeko: istorio eztabaidagarriak eta gatazka egoerak jorratzeak berekin daramala elkarrizketa konplexuak izatea, giza eskubideak defendatzeko eta iraganeko interpretazio okerrak saihesteko.

Azken batean, oroimena eraikitzean, funtsezkoena da besteen istorioak entzuten direla bermatzea, ikuspegi desberdinak txertatzen dituzten narrazioak eta ahotsak izatea, eta ahots horiek gizatasun komunaren aintzatespena planteatzen dutela bermatzea^{xiii}.

Dakigunez, hamarkadetan neurtu behar dira berreraikitze demokratikoko prozesuak, baita belaunaldietan ere^{xiv}, eta hor ikusten dugu kulturaren beharrezkoa den formula bat ere: elkarbizitzarako ekimenak sortzeko unea iragana dela dioten ahots askoren aurrean, arte adierazpenak oihartzun izugarria izaten ari dira Euskal Herriko gizartean. Pandemiak erabat baldintzatu dituen 2020 eta 2021 urte hauetan, pertsona askoren arreta jaso dute hainbat telesailak eta nobelak etxean eman dituzten ordu luzeetan. Konfinamenduak errealitate berri bati bide eman dionean, obra berriak eskaini dituzte zinemek eta antzokiek, eta "sarrerak agortuak" kartela jarri dute beren funtzioetako batean baino gehiagotan. Arrakasta horren zati bat pandemiaren ondorioz kultura kontsumoa handitzeari egotz dakiokkeen arren^{xv}, **ukaezina da biztanleriaren zati batek kultura erreferenteak bilatzen dituela bere oraintsuko oroimena prozesatzeko**, indarkeriari aurre egiteko bizipenak lantzeko eta bizikidetza kontuei beste hizkuntza batzuetatik heltzen laguntzeko.

Bidea eraikitzen

Dokumentu honen hasieran esan dugu azken hamarkada erabakigarria izan dela Euskal Herriko bizikidetzarako oinarrietako batzuk aldatzeko. Hala ere, ezin dugu pentsatu bizikidetza demokratikoa bermatzeko tresna guztiak baditugula, eta etorkizunean giza eskubideen urraketak errepikatze aukera blindatu dugula. Jakin behar dugu **ibilbide berriak sortu behar ditugula, gizartea berreraikitze prozesu luze eta iraunkorrean aurrera egin ahal izateko. Kulturak eta arteak,**



2021

indargunea
bizikidetza eta adiskidetze
kultura berri baterako

beraz, bidelagun izan behar dute, formula berriak eraikitzeko eta, bakarka nahiz taldean, bestela esploratzeko aukera izateko.

Beraz, garrantzitsua da ulertzea hemen sutsuki defendatzen dugula arteak bizikidetza eraikitzeko tresna gisa duen eginkizuna. Artelanak elementu paregabea eskaintzen digu beldur sozialei heltzeko eta dinamika berriak sortzeko espazio eta une egokiak eratzeko. Baina, aldi berean, **ihes egin behar dugu garapen artistikoa bere osotasunean eragozten duten utilitarismoetatik^{xvi}, eta bermatu behar dugu sorkuntza prozesuek ez dutela birbiktimitzatzen, ez eta indarkeriaren justifikazioa sustatzen edo giza eskubideekin bateraezinak izaten.** Ez da ez eztabaida erraza, eta, agian horregatik, funtsezkoa da gogoan izatea.

ⁱ Baketik (2019). Adiorik gabe. <http://baketik.org/imagenes/Sin%20Adios%20-Adiorik%20Gabe%202019%20-%20guia%20pedagogica.pdf>

ⁱⁱ Adiorik gabe.

ⁱⁱⁱ López Fernández Cao, M. (2017). Aletheia: contra el olvido. Estrategias a través del arte para elaborar la memoria emocional. ¿Qué hacer con el patrimonio inmaterial del recuerdo traumático?, Estudios Pedagógicos XLIII, 4. zk.: 147-160, 2017.

^{iv} Adiorik gabe-ren (Baketik, 2019) Gida pedagogikoan ikus daiteke euskarazko eleberrien zerrenda. Horrekin batera, Euskal Herrian bizitako indarkeriari buruzko liburuen zerrendak eta azterketa biltzen dituzten lan, saiakera eta lan ugari daude.

^v Adiorik gabe.

^{vi} Nazio Batuak (2014) - Kultur eskubideei buruzko kontalari berezia. Nazio Batuen Batzarra, 2014ko urtarrilaren 23a, A/HRC/25/49. <https://undocs.org/es/A/HRC/25/49>

-
- vii Zapata Restrep, G. P. (2017). Arte y construcción de paz: la experiencia musical vital, en Calle 14. 12. liburukia, 22. zenbakia / 2017ko apirila-ekaina.
- viii Hainbat lanek lantzen dute indarkeriaren sorkuntza artistikoaren eta narratiboaren arteko lotura hori, hala nola "Las narrativas del terrorismo. Cómo contamos, cómo transmitimos, cómo entendemos" lanak (Rivero y Mateo, eds., 2020), beste hainbaten artean.
- ix Maraña, M. (ed.) (2020). Aprovechar el potencial del turismo en lugares de conflicto histórico para promover la paz. Una reflexión sobre el pasado y una fuente de inspiración para el futuro. EJ, 2020.
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/es_def/adjuntos/TURISMO-Y-PAZ-CAST.pdf
- x Nazio Batuak (2020)- Egia sustatzeari, justiziarri, erreparazioari eta berriz ez errepikatzeko bermeei buruzko kontalari berezia. Nazio Batuen Batzar Nagusia, 2020ko uztailearen 9a, A/HRC/45/45. https://digitallibrary.un.org/record/3874989/files/A_HRC_45_45_Add.2-ES.pdf
- xi Kontalari berezia (2020).
- xii ICOMOS (2021) <https://icomos.es/18-de-abril-dia-internacional-de-los-monumentos-y-sitios-2021/>
- xiii Kontalari berezia (2014).
- xiv Kontalari berezia (2020).
- xv Azterketa ugarik erakutsi dute kultura kontsumoak gora egin duela etxe gehienetan COVID-19k eragindako konfinamenduetan.
- xvi Ikus, besteak beste, Iban Zalduak horri buruz egiten duen hausnarketa.
<https://www.youtube.com/watch?v=SoWVIZlhDrl>

BABESLEAK

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

